▪ Ikus-entzunezko baliabideak eta baliabide informatikoak erabiltzea musika piezak sortzeko eta irudiei eta antzezpenei soinua jartzeko.

▪ Estilo desberdinetako abestietarako eta musika pieza laburretarako koreografiak asmatzea.

▪ Grafiak desberdinak erabiltzea (konbentzionalak eta halakoak ez direnak) asmatutako musika erregistratu eta gordetzeko.

▪ Konstantziaz eta geroz eta handiagoa den zorroztasunez jokatzea musika lanak egiten direnean.

Ebaluazio irizpideak

1. Informazioa bilatu, hautatu eta antolatzea norberaren kultur ondareko eta beste kultura batzuetako arte agerpenei buruz, arte plastikoekin eta musikarekin lotutako gertaerei, sortzaileei eta profesionalei buruz.

Ikasleek egoki erabili behar dituzte eskolako liburutegiko materialak, komunikabideak eta Internet, horri esker zeregin hauetarako baliagarria izanen den informazioa eskuratzeko: ikustaldi kulturalak planifikatu eta antolatzeko, iritziak emateko eta norberaren prestakuntza eta gozamenerako on diren informazioak jakin eta trukatzeko. Balio berezia emanen zaio informazio egokia hautatzeari.

2. Beren eskura dauden arte agerpenei buruzko iritziak ematea, horiei buruz dakitena eta gozamenerako eta aisialdia betetzeko joera pertsonala erakutsiz.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da haurrek zenbateraino ezagutzen dituzten inguru hurbileko eta beste herrialde batzuetako arte agerpen eta egintzak, errealitatea behatzerakoan sentsibilitatez jokatzen duten eta irizpide eta iritziak emateko gai diren. Testu eta lan plastiko eta musikalen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna ebaluatu nahi da, bai eta ikasi den berariazko hiztegiaren erabilera nolakoa den ere.

3. Norberaren gizarte eta kulturako musikak eta beste garai eta kultura batzuetakoak ezagutzea.

Irizpide honen bitartez ebaluatu nahi da garai eta kultura ezberdinetako musika lan batzuen ezaugarri batzuk ezagutzen dituzten eta horiek izendatu eta deskribatzeko gai diren.

4. Norberaren ekintza taldeko beste kideenera egokitzea dantzak eta bi zati edo gehiagoko musika piezak interpretatzen direnean.

Irizpide hau erabiliz ebaluatu nahi da ikasleak gai ote diren arreta jarri eta beren ekintza taldeko beste kideenera egokitzeko. Ez da lortutako maila teknikoa baloratu nahi, baizik eta interpretazio jardueretan zein jarrerarekin parte hartzen den, taldean ongi moldatzeko borondatea agertuz.

5. Sortutako musika grafia mota ezberdinak erabiliz erregistratzea.

Irizpide honi esker ikusiko da ikasleek soinuak eta ikurrak nola lotzen dituzten, eta gelan asmatutako musika lan baten soinuak grafikoki irudikatzeko zer gaitasun duten. Helburua ez da zeinu zehatzak hautatzea (notazio tradizionalaren kasuan bereziki), baizik eta zeinuak sortzen den musika gogoratu eta berregiteko gida eraginkor eta funtzionala izatea.

6. Espazioaren antolaketa, zenbait materialen erabilera eta teknika desberdinen aplikazioa eskatzen duten irudikapen grafikoak egitea taldean.

Lan bat taldean egiten denean argudioetan malgutasunik baden eta beste iritzi batzuk onartzen diren ebaluatuko da; lan horretan kontuan hartuko da ikasleek konposizioko elementu plastikoen banaketari buruz bereganatu dituzten ezagutzak aplikatzen dituzten eta materialen jokabideari buruz ikasitakoak teknika egokiarekin erabiltzen laguntzen dien.

7. Material, testura, forma eta koloreek euskarri desberdinetan aplikatuta dauzkaten aukerak egiaztatzea.

Irizpide honekin ebaluatuko da hizkuntza plastikoko elementuei, manipulazio moduaren arabera izaten dituzten eraldaketei eta euskarrien arabera lortzen diren emaitzei buruz saiakuntzak eta ikerketak egitearen aldeko jarrerarik baduten. Materialen tratamenduari eta formaren, kolorearen nahiz testuraren erabilerari buruz ikasitakoa barneratu duten ere ikusiko da.

8. Ideiak, ekintzak eta egoerak modu pertsonalean irudikatzea, hizkuntza plastikoak eta ikus-entzunezkoak ematen dituzten baliabideak erabiliz.

Irizpide honen bidez ebaluatuko da plastika lanak egiterakoan autonomia eta adierazpenerako zer gaitasun duten, lan bateko elementu artistikoak konbinatu, kendu edo eraldatzean sormena eta irudimena zenbat garatu dituzten eta beren bizipenei lotutako egoerak irudikatzeko nolako gaitasuna duten.

9. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak egoki erabiltzea plastikaren eta musikaren arloko ekoizpen errazak sortzeko.

Egiaztatu nahi da ikasleek irudiaren eta soinuaren tratamendurako oinarrizko aplikazio batzuk erabiltzerakoan eta beren ekoizpenak sortzerakoan zer autonomia maila lortu duten.

GORPUTZ HEZKUNTZA

Arlo honek hezkuntza lanerako dituen funtsezko elementuak gorputza eta giza motrizitatea dira. Lehenik, mugimenduzko jarduerari lotutako gaitasunak garatzera eta gorputz-kulturaren elementuak eskuratzera bideratuta dago, garapen pertsonalari eta bizi kalitatea hobetzeari laguntzeko.

Hala ere, arlo honetako curriculuma mugimenduzko jokabideak hartu eta hobetzera baino harantzago doa. Gorputz Hezkuntzaren arloa gizarteak bizi dituen aldaketa bizkorrei adi dago, eta erantzuna eman nahi die, hezkuntzako bere asmoen bitartez, ongizate pertsonalera eta bizitza osasungarrira daramaten behar pertsonalei eta taldeen beharrei, edozein eratako estereotipo eta bereizkerietatik urrun.

Gorputz Hezkuntzak, adin hauetan, gorputz jardueraren zentzuari eta ondorioei buruz gogoeta egiten lagunduko duten gaitasunak lortzea bultzatu behar du bereziki eta, aldi berean, gorputzaren kudeaketari eta mugimenduzko jokabideari begira egokiak diren jarrera eta balioak bereganatzen lagundu behar die ikasleei. Alde horretatik, arlo hau bizitza osoan ohitura osasungarri, erregular eta jarraituak sortzera bideratuta dago, bai eta nor bere gorputzarekin ongi sentitzen laguntzera ere, oso laguntza ona baita hori autoestimua hobetzeko. Beste alde batetik, mugimendurako aukera berriak jolasaren eta esperimentazioaren bidetik sartzeak aisiarako hezkuntza egokiaren oinarriak ezartzen lagun dezake.

Gorputz jardueraren inguruan pertsonen artean sortzen diren harremanek zenbait balioz jabetzeko aukera ematen dute, hala nola errespetua, onarpena edo lankidetza, eguneroko zereginetara eramaten ahal direnak, horrela ikasleak gainerako pertsonekin, berdintasuneko egoeretan, harreman eraikitzaileak ezartzera bideratzeko. Horrekin batera, gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen aukerek gorputz hizkuntzen sormena eta erabilera bultzatzen dute, horrela harreman pertsonalak gizatiartzen dituzten sentimendu eta emozioak helarazteko.

Mugimenduaren ondoriozko kultur forma ugarien artean, gure gizartean onartuen eta zabalduenetako bat kirola da, nahiz eta adierazpen jarduerek, jokoek eta dantza tradizionalek onarpen handia duten oraindik ere. Hala, kirolaren fenomenoaren konplexutasunak eskatzen du ikasleen prestakuntzan motibatu eta lagundu egiten duten alderdiak hautatzea curriculumean, bai ikuslearen ikuspegitik bai kirola egiten dutenen ikuspegitik hartuta.

Edukiak egituratzeko moduak Gorputz Hezkuntzari Lehen Hezkuntzan zentzua ematen dioten ardatzetako bakoitza islatzen du: mugimenduari lotutako gaitasun kognitiboak, fisikoak, emozionalak eta harremanetakoak garatzea, mugimenduaren forma sozial eta kulturalak bereganatzea, balioetan heztea eta osasunerako hezkuntza ematea.

Planteamendu horri jarraikiz, arloa bost multzotan banatu da. Mugimenduari lotutako gaitasunen garapena lehenbiziko hiru multzoetan lantzen da batik bat; hirugarren multzoa eta bosgarrena mugimenduaren forma kulturalak hartzeari zuzenago lotuak daude, eta osasunerako hezkuntzak eta balioetan hezteak laugarren multzoarekin eta bosgarrenarekin, hurrenez hurren, kidetasun handia dute.

1. multzoa, Gorputza: irudia eta hautematea. Hautematearen eta mugimenduaren gaitasunak garatzen laguntzen duten edukiei dagokie multzo hau. Norberaren gorputza ezagutu eta kontrolatzen ikastera bideratuta dago bereziki, erabakigarria baita hori bai norberaren gorputzaren irudia garatzeko bai geroagoko mugimendu ikaskuntzetarako.

2. multzoa. Mugimendurako trebetasunak. Ikasleak eraginkortasunez mugitzearen gaineko edukiak biltzen ditu. Mugimendua menderatu eta kontrolatzearen inguruko lorpenak sartzen dira multzo honetan. Mugimendua egoera berrietara egokitzeko erabakiak hartzen laguntzen duten edukiak dira aipagarri.

3. multzoa. Arteari eta adierazpenari lotutako jarduera fisikoak. Gorputzaren eta mugimenduaren bidezko adierazkortasuna bultzatzen duten edukiak sartzen dira honetan. Gorputz hizkuntzaren bidezko komunikazioa ere kontuan hartu da multzo honetan.

4. multzoa, Jarduera fisikoa eta osasuna. Jarduera fisikoa osasungarria izateko beharrezkoak diren ezagutzek osatzen dute multzo hau. Gainera, bizitza osoan jarduera fisikorako ohiturak hartzeari buruzko edukiak sartzen dira, ohitura horiek ongizatearen iturri gisa hartuta. Gorputzaren osasunari buruzko edukiak jarduera fisikoaren ikuspegitik hartuta biltzen dituen multzo bat sartuta nabarmendu egin nahi da multzo guztietan ezbairik gabe zeharka ageri diren ikaskuntza batzuk lortzearen beharra.

Azkenik, 5. multzoak, Jokoak eta kirolak, jokoari eta kirol jarduerei buruzko edukiak ditu, horiek pertsonen mugimenduaren kultur adierazpen gisa ulertuta. Jokoa estrategia metodologiko gisa erabiltzen ahal bada ere, bere balio antropologiko eta kulturalarengatik ere kontuan hartzen da eduki moduan. Bestalde, eduki mota hauetan pertsonen arteko harremanek duten garrantzia ikusirik, elkartasunaren, lankidetzaren eta besteenganako errespetuaren aldeko jarreren proposamena nabarmendu behar da hemen.

Multzoek, hezkuntza etapa honetarako hautatu diren Gorputz Hezkuntzako ezagutzak egituratzeko xedea baitute, modu integratuan aurkezten dituzte kontzeptu, prozedura eta jarrerak. Aipatzekoa da Gorputz Hezkuntzan edukien arteko lehentasuna ezartzeak berarekin dakarrela prozedurazko eta jarrerazko edukien polarizazio bikoitza errespetatu beharra. Lehenengoek mugimenduaren arloan gai sentitzeko aukera emanen diete haurrei. Bigarrengoek aukera emanen diete jarduera fisikoaren eta kirolaren inguruko egoera ugari eta konplexuei eta gorputzaren kulturakoen ingurukoei ikuspegi etiko batetik heltzeko. Bestalde, kontzeptuen jabe egiteak, nahiz eta aurreko eduki motei lotuta egon, gorputzari dagokion oro eta ingurune fisiko zein soziala ulertzen laguntuko die.

Arloak oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzea

Gorputz Hezkuntzaren arloak mundu fisikoa ezagutu eta harekin elkarreragiteko gaitasuna garatzen laguntzen du funtsean, norberaren gorputza hautemanez eta harekin harremanak izanez, bai mugimenduan bai geldirik, ziurgabetasuna duen edo ez duen ingurune batean, mugimendurako aukerak hobetuz. Jarduera fisikoa ezagutu, landu eta baloratzea osasuna zaintzeko bidea ere badela aipatu behar da. Arlo hau gakoa da haurrek ohitura osasungarriak eta egoera fisikoa hobetu eta mantentzekoak har ditzaten eskolarako eta, are garrantzizkoagoa dena, bizitza osorako.

Gaur egungo gizartean, ahalegin intelektual eta fisikoaren optimizaziorantz baitoa, behar-beharrezkoa da jarduera fisiko arduratsua, baina batez ere jarduera fisikoa oreka psikofisikorako, sedentarismoaren ondoriozko arriskuei aurrea hartzeko eta, halaber, aisialdirako ona dela kontuan hartu eta hala baloratzea.

Horrekin batera, gaitasun soziala eta herritartasuna garatzeari ere funtsezko laguntza ematen dio. Gorputz Hezkuntzaren ezaugarriak, batez ere jarduera hori egiteko inguruneari eta klaseen dinamikari eta elkarreraginei dagozkienak, nolakoak diren ikusita, esaten ahal da trebetasun sozialak erakusteko egokia dela, hezkuntzak alderdi hori ukitzen duenean. Jarduera fisikoak eta, bereziki, taldean egiten direnak oso baliagarriak dira harremanak, integrazioa eta errespetua lantzeko, eta lankidetza eta elkartasuna garatzen laguntzen dute gainera.

Gorputz Hezkuntza lagungarria da elkarrekin bizitzen ikasteko, batez ere taldean jarduteko arauak eman eta onartzeari dagokionez, betiere norberaren autonomia, parte-hartzea eta aniztasunaren balorazioa errespetatuta. Mugimendurako trebetasunak lortzeari begira egiten diren jarduerek ezinbestekoa dute desberdintasunak eta bakoitzaren eta besteen ahalbideak eta mugak errespetatu eta onartzeko gaitasuna. Jokoen gaineko arauak betetzeak bizikidetzako jokabide kodeak onartzen laguntzen du. Lehiakortasunezko jarduera fisikoek gatazkak sorrarazten ahal dituzte, eta horiek konpontzeko elkarrizketan oinarritutako negoziazioa behar izaten da. Azkenik, jokoen eta dantzen bidez kultur aberastasuna ezagutzen eta estimatzen laguntzen dela aipatu behar da.

Arlo honek arte eta kutur gaitasuna lortzen laguntzen du neurriren batean. Gorputzaren eta mugimenduaren aukera eta baliabideak aztertu eta erabiliz ideia edo sentimenduak sormenez adierazten laguntzen da. Kultur egintza aintzat hartzen eta ulertzen eta kultur aniztasuna baloratzen laguntzen du, pertsonen mugimenduari dagozkion kultur agerpenak ezagutu eta aintzat hartuz, hala nola kirolak, joko tradizionalak, adierazpen jarduerak edo dantza, eta horiek guztiak herrien ondaretzat hartuz.

Beste alde batetik begiratuta, arlo honek kirola ikuskizun moduan ere ikusarazten du, kirolean izaten den indarkeria edo giza duintasunaren kontrako beste egoera batzuk aztertzearen eta horien gaineko gogoeta kritikoa egitearen bidez.

Gorputz Hezkuntzak norberaren autonomia eta ekimena lortzen ere laguntzen du, erabakiak geroz eta autonomia handiagoaz hartzera bultzatzen baitu ikaslea, bere burua hobetzen ari dela, jarraikitasunez jokatzen duela eta jarrera positiboa duela erakutsi beharreko egoeretan. Ikasleei jarduera fisikoen eta kirol eta adierazpen jardueren banakako eta taldeko antolaketaren zenbait alderditan protagonismoa ematen zaienean ere hala gertatzen da.

Arlo honek, neurri txikiagoan, ikasten ikasteko gaitasunean laguntzen du, bakoitzak bere burua eta bere ahalbide eta mugak ezagutzea mugimendurako ikaskuntzaren abiapuntu hartuta, eta mugimenduari lotutako geroz eta zeregin konplexuagoetara iritsi ahal izateko askotariko errepertorioa garatuz. Horrek lortzen ahal diren helburuak ezartzeko bidea ematen du, eta helburuak lortzeak, jakina, autokonfiantza ekartzen du. Era berean, taldeen jarduera fisikoetako proiektu komunei esker errazagoa da lankidetzarako baliabideak lortzea.

Beste alde batetik, informazio eta komunikazio bideetatik gorputzaren inguruan iristen diren mezuak, bakoitzak bere gorputzari buruz duen irudiari kalte egin diezaioketenak, kritikoki baloratzen laguntzen die arlo honek ikasleei, txiki-txikitatik. Ikuspegi honetatik begiratuta, informazioaren tratamenduaren eta gaitasun digitalaren gaitasuna lantzen ere laguntzen du, neurri batean.

Hizkuntzaren bidez komunikatzeko gaitasuna lantzeko ere lagungarria da arlo hau, gainerako ikaskuntzak bezala, komunikazio trukeak, horien gaineko arauen erabilerak eta arloko berariazko hiztegia ikasteko aukera ematen baitu.

Helburuak

Etapa honetan Gorputz Hezkuntzak gaitasun hauek garatzea izanen du helburu:

1. Arloari dagozkion dokumentu eta mezuak, ahozkoak, idatziak, gorputzaren bidezkoak eta ikus-entzunezkoak, zuzen ulertu eta adieraztea.

2. Gorputza eta jarduera fisikoa ezagutu eta baloratzea, mugimendurako aukerak eta besteekiko harremanak aztertu eta horiekin gozatzeko bide diren aldetik eta aisia antolatzeko baliabide.

3. Jarduera fisikoak ongizatea lortzen laguntzen duela aintzat hartzea, nork bere buruarentzat eta besteentzat jarrera arduratsua agertuz eta ariketa fisikoaren, higienearen, elikaduraren eta osasunari buruzko ohituren ondorioez ohartuz. Inguru eta egoera desberdinetan segurtasunez jokatzen ikastea, bai besteei begira bai norberari begira.

4. Gaitasun fisikoak, mugimendu trebetasunak eta gorputzaren egiturari zein funtzionamenduari buruzko ezagutza erabiltzea mugimendua egoera bakoitzeko inguruabar eta baldintzetara egokitzeko.

5. Mugimendu arazoak konpontzeko printzipio eta erregelak eskuratu, hautatu eta aplikatzea, eta jarduera fisikoak, kirolak eta arte zein adierazpen jarduerak egiten direnean modu eraginkor eta autonomoan jokatzea.

6. Ahalegina erregulatu eta neurtzea, bakoitzaren ahalbideen eta zereginaren izaeraren araberako autoexijentzia mailara iristeko.

7. Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen baliabideak modu estetiko eta sormenezkoan erabiltzea, sentsazio, emozio eta ideiak helaraziz.

8. Jarduera fisikoetan parte hartzea proiektuak partekatuz, helburu komunetara iristeko lankidetzan arituz, sortzen ahal diren gatazkak elkarrizketaren bidez konponduz eta ezaugarri pertsonalak, generokoak, sozialak eta kulturalak direla-eta izaten ahal diren bereizkeriak saihestuz.

9. Jarduera fisikoek eta jolas eta kirol jarduerek kultur elementu gisa duten aniztasuna ezagutu eta baloratzea, eta bai parte-hartzailearen bai ikuslearen ikuspegitik begiratuta jarrera kritikoa agertzea.

10. Liburutegia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ohitzea, gauzak ikasi eta ikasitakoa partekatzeko baliagarriak baitira.

Lehen zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Gorputza: irudia eta hautematea

- Zentzumenezko ahalbideak. Sentsazioak aztertu eta bereiztea. Gorputza orokorrean hartuta hauteman, identifikatu eta irudikatzea. Gorputz atalak eta gorputz segmentuak eta horiek mugimendurako dituzten ahalbideak ezagutzea.
- Bakoitzaren gorputzak tentsioaren, lasaitzearen eta arnasketaren arabera nola jokatzen duen ohartzea. Arnasketa faseak identifikatzea, arnasketa behatu eta saiakuntzak egitea egoera desberdinetan eta lasaitzearekin lotuta.
- Gorputz jarrera desberdinekin probak egitea.
- Lateralitatea finkatzea.
- Oreka eta desoreka egoerekin saiakuntzak egitea, oinarri zabal, egonkor eta lurretik hurbileko bat izanik.
- Espazio eta denbora erlazioei lotutako nozioak. Espazioaren eta denboraren hautematea.
- Koordinazio dinamiko egonkorra eta begi eta mugimenduena.
- Nork bere gorputza eta besteena onartu eta errespetatzea.

2. multzoa.–Mugimendurako trebetasunak.

- Mugimenduaren forma eta aukerak. Mugimendurako oinarrizko trebetasunak gauzatu eta kontrolatzeko modu desberdinekin saiakuntzak egitea.
- Mugimendua kontrolatu eta menderatzea ekintzaren aurreko planteamenduan oinarrituta (mugimenduaren arrazoitzea), hautematearen mekanismoetan arreta handiagoa jarriz.
- Mugimendu arazo errazak konpontzea.
- Oinarrizko gaitasun fisikoen garapen oinarrizko eta orokorra, joko egoerez baliaturik.
- Era askotako jardueretan parte hartzearen aldeko jarrera izatea, trebetasun maila ezberdinak daudela onartuta.

3. multzoa.–Arteari eta adierazpenari lotutako jarduera fisikoak

▪ Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen aukerez jabetu eta horiekin saiakuntzak egitea.

▪ Gorputz-hautematearen sentsibilizazio eta garapena, bai norberaren gorputzean bai besteenean.

▪ Mugimendua pultsazioekin eta erritmo egitura errazekin sinkronizatzea.

▪ Emozio eta sentimenduak keinuen eta mugimenduaren bidez adierazi eta komunikatzea, eguneroko egoerak, sentsazioak eta gogoaldarteak herabetasunik gabe azalduz.

▪ Ereduak imitatzea, pertsonaia, objektu eta egoerak azaltzen direnean.

▪ Norberaren gorputzaren bidezko adierazpenarekin gozatzea. Mugimendua sekuentzia eta erritmo errazetara egokitzea, eta mugimenduaren kalitateak aztertzea.

▪ Objektu eta materialekin gauzak adierazteko dauden aukerak.

▪ Gorputzaren bidezko komunikazioa eskatzen duten egoeretan parte hartzea.

▪ Adierazpen moduetan dauden desberdintasunak ezagutu eta baloratzea.

4. multzoa.–Jarduera fisikoa eta osasuna

▪ Gorputzaren higienean, elikaduran eta jarreretan oinarrizko ohiturak hartzea, jarduera fisikoarekin lotuta betiere.

▪ Jarduera fisikoa eta gorputza zaintzea, osasunarekin eta ongizatearekin lotuta.

▪ Gorputza mugitzea, osasunari begira.

▪ Jarduera fisikoa egiten denean materialak eta eremuak erabiltzeko arauak betetzea.

5. multzoa.–Jokoak eta kirolak

▪ Jokoa, kultura guztietako jarduera. Joko libre eta antolatuak egitea. Joko tradizional eta herrikoiak.

▪ Lankidetzako, aurkaritzako eta lankidetza-aurkaritzako egoera kolektiboez jabetzea, kasuan kasuko joko arauak betetzea eta jokoan eginkizun desberdinak onartzea.

▪ Jokoan parte hartzen duten pertsonak aintzat hartu eta baloratzea eta jokoan aktiboki parte hartzea, eginkizuna, kideak, modalitatea eta abar zein diren kontuan hartu gabe.

▪ Jokoaren arauak ulertu eta betetzea.

▪ Norberaren ahalbideetan konfiantza izatea eta ahalegina egitea jokoetan aritzean.

▪ Jokoa gozamerako eta besteekin harremanak izateko bide den aldetik baloratzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Ikusizko, entzunezko eta ukimenezko estimuluen aurrean gorputzaren bidez erreakzionatzea, estimulu horien ezaugarrien arabera-koak diren mugimenduzko erantzunak emanez.

Mugimendua baldintza dezaketen estimuluak bereiziz ematen den erantzuna ebaluatu nahi da irizpide honen bidez. Egiaztatuko da ohiko objektu eta testurak ukimenez bereizten badakiten, eguneroko soinuen jatorria zein den jakin eta identifikatzeko gai diren, objektuen eta gauza mugikorren ibilbideak jarraitu eta interpretatzeko gauza diren eta beren mugimenduetan lateralitatea bereizten duten. Estimulua desagertu eta gero entzun eta ikusitakoa gogoratzeko duten gaitasuna ere ebaluatuko da, hau da, entzunezko eta ikusizko memoria.

2. Era askotan mugitu eta jauzi egitea, euste puntuak, zabaltasunak eta maiztasunak aldatuz, koordinazioa eta espazioko orientazio ona hobetuz.

Irizpide honekin ebaluatuko da modu ezberdinetan eta inguru hurbileko espazioetan orientatuz mugitu eta jauzi egiteko gaitasuna. Kontuan hartuko da ikasleek gorputzaren jarrerak eta mugimenduen norabidea eta zentzua aldatuz beren ahalbideak aztertzeko duten prestasuna. Gorputz jardueran, mugimendurako gaitasuna handitzeko, luzetarako eta zeharkako ardatzaren inguruan biratzeko trebetasunaz baliatzen diren ebaluatuko da. Lekualdatzeak eta jauziak jokoen eta beste mugimendu egoera batzuen baldintzetara egokitzeko gaitasuna izanen da kontuan bereziki.

3. Objektuak erabiltzea eskatzen duten jaurtiketak eta harrerak eta beste trebetasun batzuk, gorputz segmentuak ongi koordinatuta eta gorputza jarrera egokian ipinita.

Objektuak erabiltzea eskatzen duten trebetasunetan garrantzitsua da keinua joko egoeretan nola koordinatu eta erabiltzen den egiaztatzea. Gorputza keinua errazteko modu egokian jarri eta bideratzen den ikusteak ere garrantzia du. Indarra eta doitasuna ez dira sartzen arlo honetan.

4. Gorputza jarrera desberdinetan orekatzea, tentsioa, lasaitasuna eta arnasketa kontrolatuz.

Ikasleek, ziklo honetan, muskuluen tonuaren nolabaiteko kontrola lortu behar dute, eta gorputz segmentu ezberdinetan beharrezkoak diren tentsioak aplikatzeko gauza izan behar dute, orekatu ahal izateko. Jarrerak dibertsifikatu egin beharko dira, eta horrela oreka baldintzaten duten estimuluen aurrean nola erreakzionatzen den egiaztatzen ahalko da. Ebaluazioan ez da ereduen imitazioa bilatu behar, baizik eta, bereziki, ikasleek jarrera desberdinak hartzeko duten ekimena.

5. Jokoetan parte hartu eta gozatzea, mugimenduari eta harremanei dagokienez beren ekintza egokituz, eta sortzen ahal diren frustrazio txikiak onartuz.

Jokoan aktiboki parte hartzen duten ikusiko da, hain zuzen ere lekualdatzeei, norabide aldaketei, espazioko orientazioari, estimuluak bereizteari eta abarri dagokion orotan. Kideekin harreman onak sortzen laguntzen duten alderdiak hartuko dira kontuan batez ere, esate baterako jokoetako arauak errespetatzea eta eginkizun ezberdinak onartzea, bai eta parte-hartzaileen artean inolako bereizkeriarik ez egitea ere.

6. Erritmo egitura bat gorputzaren bidez eta/edo elementuak (oihalak, zintak, tresnak...) erabiliz berregitea.

Ikasleak erritmo egitura erraz bat berregiteko gai diren egiaztatu nahi da. Berregitea gorputza mugituz (lekualdatzeak, jauziak, txaloak, kolpeak, kulunkatzeak, biraketak) eta/edo perkusio tresnak erabiliz egiten ahal da.

7. Pertsonaiak eta egoerak gorputzaren eta mugimenduaren bidez sinbolizatzea, herabetasunik gabe eta aisetasunez.

Garrantzitsua da beren gorputzarekin esperimentatzeko gai izatea eta keinuaren eta mugimenduaren bidez gauzak adierazten ahal dituztela ohartzea. Estereotipoetatik urrun dauden adierazpen modu berriak bilatzeko ekarpen eta ahalegina baloratuko da. Halaber, proposamenetan sartzeko eta "pertsonaiaren barruan" sentitzeko ahalegina ere kontuan izanen da, antzeztu beharrezko pertsonaia inolako aurreiritzirik gabe onartuz.

8. Gorputza zaintzeko arauak betetzearen gaineko interesa agertzea, higieneari eta jarduera fisikoko arriskuaz ohartzeari dagokionez, eta jarduera fisikoaren eta osasunaren arteko lotura zuzenen bat identifikatzea.

Osasunari eta ongizateari begira ohitura batzuk hartzearen aldeko joera izanen da irizpide honen oinarria. Egiaztatu nahi da ea ohartzen diren jarduera fisikoa egin aurretik ongi elikatu behar dela, gorputzak higiene ona behar duela, oinetako egokiak erabili behar direla, etab., bai eta autonomia mailaren bat ikusten zaien ere. Gainera, jarduera fisiko batzuek banakakoentzat zein taldeentzat dituzten arriskuak identifikatu eta gogoan hartu behar dituzte.

9. Beren esperientziak ahoz eta idatziz azaltzea eta beren pentsamenduak arloko berariazko hitzak erabiliz adieraztea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da arloko testuen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna, eta ikasi den berariazko hiztegiaren erabilera nolakoa den.

Bigarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Gorputza: irudia eta hautematea.

▪ Hautemateko ahalbideak. Hautemateko gaitasunak eta horiek mugimenduarekin duten lotura aztertzea.

▪ Mugimenduarekin zerikusia duten elementu organiko-funtzionalez jabetzea.

▪ Gorputzaz ohartu eta kontrolatzea eta bakoitzaren gorputzak tentsioaren, lasaitzearen eta arnasketaren arabera nola jokatzen duen ohartzea.

▪ Nork bere gorputza eta besteena irudikatzea. Gorputzaren jarreraz, ardatzez, planoez eta segmentuez ohartzea.

▪ Jarrera adierazpen eta mugimendu beharretara egokitzea.

▪ Lateralitatea finkatzea eta espazioan azaltzea. Gorputzaren simetria.

▪ Oreka estatiko eta dinamikoa. Geroz eta konplexuagoak diren egoerak, oinarria eta egonkortasuna murriztuz eta grabitate zentroa goratuz.

▪ Espazioaren eta denboraren antolaketa.

▪ Koordinazio dinamiko-orokorra.

▪ Norberaren gorputza eta besteena den bezala baloratu eta onartzea.

2. multzoa.–Mugimendurako trebetasunak.

▪ Mugimenduaren forma eta aukerak. Oinarrizko mugimendu trebetasunak gauzatzean funtsezko elementuak doitu eta finkatzea (mugimendu eredu bat baino gehiago konbinatuz).

▪ Oinarrizko mugimendu trebetasunak ingurune eta egoera egonkor eta ezagunetan modu eraginkorrean erabiltzea.

▪ Mugimendua kontrolatu eta gorputza menderatzea ekintzaren aurreko planteamenduan oinarrituta (mugimenduaren arrazoitzea), eta kontrol neuromuskularrean eta jada ezagutzen diren mugimenduen kalitatean arreta handiagoa jarriz.

▪ Oinarrizko kualitate fisikoak hobetzea, orokorrean eta mugimenduetara bideratuta, arreta malgutasunean eta erresistentzia aerobikoaren eta abiaduraren hasieran jarriz, jokoaren formen bitartez.

▪ Mugimendurako gaitasuna hobetzeko interesa.

▪ Era askotako jardueretan parte hartzearen aldeko jarrera izatea, trebetasun maila ezberdinak daudela onartuta.

3. multzoa.–Arteari eta adierazpenari lotutako jarduera fisikoak

▪ Gorputza eta mugimendua adierazpen eta komunikaziorako tresna gisa.

▪ Mugimendua espazio-denborako egituretara egokitzea eta dantza eta koreografia errazak egitea.

▪ Emozio, sentimendu, ideia eta egoerak gorputzaren, keinuaren eta mugimenduaren bidez adieraztea.

▪ Egiazko eta fikziozko pertsonaiak eta beren testuinguru dramatikoak berregitea.

▪ Objektuak eta materialak erabiltzea, eta adierazpenerako dituzten aukerak.

▪ Norberaren gorputzaren bidezko adierazpen eta komunikazioarekin gozatzea.

▪ Gorputzaren bidezko komunikazioa eskatzen duten egoeretan parte hartzea. Adierazpen moduetan dauden desberdintasunak ezagutu eta baloratzea.

4. multzoa.–Jarduera fisikoa eta osasuna

▪ Gorputzaren jarreretan eta elikaduran ohitura osasungarriak hartzea, jarduera fisikoarekin lotuta betiere, eta gorputzaren higienearen aldeko ohiturak finkatzea.

▪ Jarduera fisikoa osasunarekin, ongizatearekin eta garapen pertsonalarekin lotzea. Jarduera fisikoak osasunean dituen onurez jabetzea. Egoera fisikoa oro har hobetzea, osasunari begira.

▪ Osasunarekin zerikusia duen jarduera fisikoaren inguruan erantzukizuna eta interesa agertzea.

▪ Jarduera fisikoetan norbera segurtasunez aritzea. Berotzea, ahalegina neurtzea eta lasaitzea. Bakoitza bere mugez ohartzea, eta jardueretan kontzentrazioa izan eta arreta jartzea.

▪ Jarduera fisikoa egitean segurtasunerako oinarrizko neurriak hartzea, ingurunea dela eta. Materialak eta espazioak zuzen eta errespetuz erabiltzea.

5. multzoa.–Jokoak eta kirolak

▪ Jokoa eta kirola gizartearen elementu.

▪ Jokoetan parte hartzea eta kirol jardueretan hastea.

▪ Lankidetzarekin, aurkaritzarekin eta lankidetza/aurkaritzarekin zerikusia duten jokoaren oinarrizko estrategiez jabetzea.

▪ Modu aktiboan eta interesa agertuz parte hartzea kirol aurreko jokoetan, tradiziozkoetan, herrikoietan, abenturazkoetan eta egokituetan.

▪ Jokoan parte hartzen duten pertsonak errespetatzea eta gizartearen aurkako jokabideak arbuiatzea.

▪ Jokoaren arauak ulertu, onartu eta betetzea, joko garbian aritzea, ezarritako estrategien aurrean arduraz jokatzea eta bakoitzaren eta besteen trebetasun maila onartzea.

▪ Jokoa gozamerako, besteekin harremanak izateko eta aisiako denbora betetzeko bide den aldetik baloratzea, eta jokoetan zein kirol jardueretan ahalegina baloratzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Mugitu eta jauzi egitea, bi trebetasun horiek modu koordinatu eta orekatuan konbinatuz, gorputzaren mugimenduak jardueraren baldintzen zenbait aldaketen arabera egokituz.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da modu desberdinetan eta abiadura aldakorrekin, norabide eta zentzu aldaketekin eta oztopo txikiak gainditu mugitu eta jauzi egiteko gaitasuna kualitatiboki zenbat hobetu den. Mugimendu edo jauzi mota desberdinak konbinatzean berrorekatzeko gaitasunean jarriko da arreta, bai eta norberaren mugimenduetan eta besteenetan lateralitatea bereizteko gaitasunean ere. Bereziki begiratuko zaio mugimendu arazoak konpontzeko eta espazioan orientatzeko gaitasunari, mugimendu eta jauziak baldintza berrietara egokitu ahal izateko.

2. Pilotak edo beste gauza mugigarri batzuk jaurti, pasatu eta jasotzea, horien kontrola galdu gabe eta mugimenduak ibilbideen arabera egokituz.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da objektuak erabiltzea eskatzen duten trebetasunetan nolako koordinazioa duten eta joko egoeretan nola erabiltzen diren. Objektuak pasatu, jaurti, eraman eta talka egitean ibilbideen egokitasuna kontuan hartuko da. Objektuak hartu eta gelditzean gorputza nola bideratuta dagoen begiratuko da. Indarra ez da sartzen arlo honetan.

3. Luzetarako eta zeharkako ardatzaren inguruan biratzea, kokapen segmentarioak dibertsifikatuz eta gorputz jardueretan beharrezkoak diren mugimenduzko erantzunak hobetuz.

Gorputz biraketei dagokienez, eguneroko jardueretan erabiltzeko duten gaitasuna egiaztatu beharko da. Luzetarako ardatzaren inguruko biraketak mugimendu eta jauziekin, norabide eta zentzu aldaketekin lotuta egoten ahalko dira. Ebaluazioa egitean, aurrez zehaztutako ereduen imitazioa bilatu beharrean, biraketa desberdinak mugimenduzko erantzun egoki eta sormenezkoak emateko erabiliko dira, betiere arriskua saihestuz.

4. Modu koordinatuan eta lankidetzaren bidezkoan jokatzea erronkei irtenbidea aurkitzeko edo talde joko batean aurkari bati edo batzuei aurre egiteko.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da joko egoeretan elkarreraginez modu egokian aritzeko gai diren, talde bateko kideek elkarri laguntzen diotela. Ikusi behar da, halaber, aurkaritzako egoeretan jokalariek jokoa errazten duten posizioak hartzen ote dituzten jokalekuan, esate baterako toki libreak hartu edo jokoaren norabidearen aldera jo.

5. Talde jokoetan parte hartzea, zeregin desberdinak hartuz, eta parte-hartzea, lankidetza, elkarri laguntza ematea eta arauak errespetatzea jokoen funtsezko baliotzat jo eta emaitzei baino garrantzi handiagoa ematea.

Mugimendurako trebetasun batzuek eta trebetasun sozial batzuek baldintzatuko dute jokoan erabateko parte-hartzea izatea. Bestalde, kontuan hartuko da mugimenduaren eraginkortasuna eta ahalegina egin eta egoera fisikoa aprobetxatzeko gaitasuna, jokoan erabateko parte-hartzea izateko. Horretaz gainera, parte-hartzaileei harreman onak izaten laguntzen dieten trebetasun sozialak ere kontuan hartuko dira (arauak errespetatzea, besteak kontuan hartzea, estereotipoetan, aurreiritzietan, etab. oinarritutako bereizkeria eta lehiak saihestea).

6. Erritmo egitura bat gorputzaren bidez edo elementuak (oihalak, zintak, tresnak...) erabiliz berregitea.

Irizpide honekin ebaluatuko da haurrak gai ote diren erritmo egitura erraz bat asmatu eta berregiteko, bai jada ezagutzen dituzten elementuak konbinatuz, bai elementu berriak erabiliz. Berregitea gorputza mugituz (lekualdatzeak, jauziak, txaloak, kolpeak, kulunkatzeak, biraketak) eta/edo perkusio tresnak erabiliz egiten ahal da.

7. Gorputzak adierazpenerako dituen baliabideak erabiltzea, eta taldean parte hartzea ideia, emozio eta sentimenduak azaltzeko eta pertsonaia, objektu eta istorioak, egiazkoak edo asmatuak, eszenifikazio edo imitazio bidez antzezteko.

Ikasleek beren taldean parte hartzea garrantzizkoa da adierazpeneko sekuentzia txikiak egiteko. Sormenezko proposamen bat antolatu eta prestatzerakoan elkarrizketarako eta ardurarako duten joera baloratuko da irizpide honekin. Eszenaratzean, kontuan hartuko dira keinu esanguratsuak, bai eta besteek adierazten dutenari arreta jartzeko, mezua jasotzeko eta akzioari argumentuaren haria errespetatuz segitzeko gaitasuna ere.

8. Jokabide aktiboak izatea, jarduera fisikoak osasunerako duen balioarekin bat heldu direnak, eta gorputza zaintzeko interesa agertzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleak ohartzen ari ote diren jarduera fisikoak osasunerako dituen ondorio onez, gorputza zaintzearen garrantziaz eta joko zein jardueretan beharrezkoak ez diren arriskuak saihesteko jarrerez. Gainera, gaitasun fisikoak garatzen ari diren ere baloratu nahi da, horretarako emaitzak konparatu eta aurrerapenak ikusi ahal izateko ondoz ondoko behaketak eginez, helburua jarduera fisiko ona mantentzea dela ahaztu gabe, osasunari begira noski.

9. Beren esperientziak ahoz eta idatziz azaltzea eta beren pentsamenduak arloko berariazko hitzak erabiliz adieraztea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da arloko testuen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna, eta ikasi den berariazko hiztegiaren erabilera nolakoa den.

Hirugarren zikloa

Edukiak

1. multzoa.–Gorputza: irudia eta hautematea

▪ Mugimenduarekin lotuta dauden elementu organiko-funtzionalak.

▪ Gorputzaz ohartu eta kontrolatzea, bai geldirik bai mugimenduan dagoela.

▪ Kontrol tonikoa eta arnasketarena aplikatzea mugimenduaren kontrolari.

▪ Jarrera adierazpen eta mugimendu beharretara egokitzea, modu ekonomiko eta orekatuan.

▪ Estimuluen arteko bereizketa eta pertzepziozko aurre hartzea egokiro erabiltzea.

▪ Zail samarrak diren mugimenduak nagusiak ez diren gorputz segmentuekin egitea.

▪ Egoera ezegonkorretan eta geroz eta konplexutasun handiagokoetan koordinazioa eta oreka estatiko eta dinamikoa izatea.

▪ Espazioaren eta denboraren egituraketa mugimenduzko ekintza eta egoera konplexuetan.

▪ Norberaren gorputza eta besteena den bezala baloratu eta onartzea, gaur egun gizartean gorputzari eta estetikari buruz indarra duen ereduaren aurrean jarrera kritikoa agertuz.

2. multzoa.–Mugimendurako trebetasunak.

▪ Mugimendurako trebetasunak geroz eta konplexuagoak diren saioetara egokitzea, eraginkortasunez eta sormenez, mugimenduko hiru eredu edo gehiagotatik abiatuta.

▪ Mugimendua eta gorputza menderatzea ekintzaren aurreko planteamenduan oinarrituta (mugimenduaren arrazoitzea), erabakitzearen eta kontrolaren mekanismoetan arreta handiagoa jarriz.

▪ Egokitzapen fisikoa, mugimendurako trebetasunak hobetu gauzatu ahal izateko.

▪ Mugimenduaren ikuspuntutik ongi eginda dagoen lana baloratzea.

▪ Segurtasuna, autonomia pertsonala eta era askotako jardueretan parte hartzearen aldeko jarrera izatea, trebetasun maila ezberdinak daudela onartuta.

3. multzoa.–Arteari eta adierazpenari lotutako jarduera fisikoak

▪ Gorputza eta mugimendua. Gorputz hizkuntzaren aukera eta baliabideak aztertu eta aintzat hartzea.

▪ Mugimenduen konposizioa, erritmo eta musikako estimuluetatik abiatuta. Dantza, dantza herrikoi eta koreografia errazak prestatu eta garatzea.

▪ Ideia, mezu, sentimendu eta emozio pertsonal eta konpartituak gorputzaren, keinuaren eta mugimenduaren bidez adierazi eta komunikatzea, bai bakarkako lanetan bai taldeko jardueretan.

▪ Pertsonaiak, eszenak eta egoerak prestatu eta antzeztea, eta gorputz-jarrerak, keinuak, soinuak, gogo-aldarteak gauzatzen direnean mugimenduaren kalitateak integratzea.

▪ Antzezpen eta inprobisazio artistikoak egitea gorputzaren bidez eta objektu eta materialen laguntzarekin.

▪ Gorputza adierazpenerako eta komunikaziorako erabiltzen ahal dela baloratzea.

▪ Gorputzaren bidezko komunikazioa eskatzen duten egoeretan parte hartu eta hori errespetatzea.

4. multzoa.–Jarduera fisikoa eta osasuna

▪ Gorputzaren jarreretan eta elikaduran ohitura osasungarriak hartzea eta gorputzaren higienean autonomia izatea.

▪ Jarduera fisikoak osasunean dituen onurez jabetzea, bai eta garapen pertsonalerako duen garrantziaz ere, eta oso osasungarriak ez diren ohiturak identifikatzea.

▪ Egoera fisikoa hobetzea, osasunari begira.

▪ Jarduera fisikoan lesioei aurrea hartzea. Berotzea, ahalegina neurtzea eta errekuperazioa.

▪ Jarduerak egiten direnean ardura, kontzentrazio eta arretaz jokatzea, batez ere norberarentzat edo besteentzat arriskuren bat izaten ahal den egoeretan.

▪ Jarduera fisikoa egitean segurtasunerako neurriak hartzea, ingurunea dela eta. Materialak eta espazioak zuzen eta errespetuz erabiltzea.

▪ Osasuna mantendu eta hobetzera bideratutako jarduera fisikoa eta gorputz-ohitura osasungarriak baloratu eta horiekiko interesa agertzea, eta substantzia eta jarrera kaltegarriak baztertzea.

5. multzoa.–Jokoak eta kirolak

▪ Jokoa eta kirola, gizarte eta kultur fenomeno gisa.

▪ Joko motak eta kirol aurreko jarduerak. Zenbait motatako jokoak eta kirol jarduerak egitea; geroz eta zailagoak eta ingurune ezberdinetakoak.

▪ Lankidetzarekin, aurkaritzarekin eta lankidetza/aurkaritzarekin zerikusia duten jokoaren oinarrizko estrategiak egoki erabiltzea, bai eta mugimendu egoerak, estrategiak eta erabakiak ere.

▪ Kirol aurreko jokoak, joko herrikoiak, esplorazio eta abenturazkoak egitea, bai eta kirol egokituak ere, zeregin desberdinak, trebetasun mailak eta mugak baloratu, onartu eta errespetatuz eta bizikidetzari laguntzen dioten jarrerak garatuz.

▪ Jokoan arauak, erregelak, estrategiak eta pertsonak onartu eta errespetatzea. Joko garbiko kode bat prestatu eta betetzea.

▪ Ahalegin pertsonala eta taldearena baloratzea joko mota eta kirol jarduera guztietan, gogokoagoa dena eta aurreiritziak alde batera utzita.

▪ Jokoa eta kirol jarduerak gozamenerako, besteekin harremanak izateko eta aisiako denbora egoki eta modu osasungarrian erabiltzeko bide diren aldetik baloratzea.

Ebaluazio irizpideak

1. Mugimenduak, jauziak eta oinarrizko beste trebetasun batzuk ezezagunak diren eta ziurgabetasun pixka bat sortzen ahal duten inguruneen arabera egokitzea.

Irizpide honekin ebaluatu nahi da ikasleek mugimendu arazoak konpontzeko duten gaitasuna, trebetasunak inguruneko baldintza geroz eta konplexuagoetara egokitzean. Era berean, espazioan orientatzeko gaitasuna ere ebaluatuko da, hain zuzen ere erreferentzia puntuak hartuz, toki batetik bestera joateko mapa errazak interpretatuz, bide egoki bat hartuz orientatzeko gaitasuna.

2. Pilotak edo beste gauza mugigarri batzuk jaurti, pasatu eta jasotzea, horien kontrola galdu gabe halakoak behar diren jokoetan eta mugimenduzko jardueretan, eta jokalekuko posizioaren, distantzien eta ibilbildeen arabera egokituz.

Objektuak menderatzen diren egiaztatu behar da, baina batez ere joko egoeretan nola erabiltzen diren, hau da, taldeko kideak eta aurkariak kontuan hartuta. Horregatik, garrantzizkoa da gorputza mugitzen den gauzaren arabera nola bideratzen den ikustea. Ibilbide eta abiadurei aurrea hartzeko gaitasuna ere kontuan hartu beharko da.

3. Modu koordinatuan eta lankidetzaren bidezkoan jokatzea erronkei irtenbidea aurkitzeko edo talde joko batean aurkari bati edo batzuei aurre egiteko, bai erasotzaile gisa bai babesle gisa.

Joko egoeretako elkarreraginak ebaluatu nahi dira irizpide honen bidez. Talde bateko kideen arteko laguntza eta lankidetza nolakoa den ikusi nahi da. Aurkaritzako ekintzak ere aztertuko dira, hala nola jaurtitzen denari bidea moztea edo aurkariari aurrera egitea zailtzea. Jokalariek jokalekuan lankidetza eta aurkaritza errazten duten posizioak dituzten ere begiratu behar da.

4. Jokoen eta kirol jardueren funtsezko balioak ondoko hauek direla ohartzea: ahalegin pertsonala, taldearekin ezartzen diren harremanak eta kideekin bat etorriz jokatzea, arauak betetzea eta materiala zaintzea.

Irizpide honekin egiaztatu nahi da ikasleek talde lanari garrantzia ematen dioten, ahaleginak gogobetetzen dituen eta joko garbia errespetatzen duten, bai eta joko eta kiroletan ezartzen diren harreman pertsonalak ere, jardueraren beraren emaitzen (irabazi edo galtzearen) gainetik betiere, eta neskekin zein mutilekin jokatzen duten, modu integratzailean.

5. Iritzi koherente eta kritikoa ematea jarduera fisikoa eta kirola egitean sortzen diren gatazkei buruz, eta kideen iritziak onartzea, elkarrizketa, ituna eta errespetua konponbidetzat jotzeaz batera.

Egindako lanaz eta sortutako egoerez gogoeta egitea eta gorputzarekin, kirolarekin eta horien kultur agerpenekin zerikusia duten gaur egungo gaiak izanen dira irizpide honen bidezko ebaluazioaren xedea. Zenbait gaitasun hartuko dira kontuan, hala nola iritziak sortu eta adierazteko gaitasuna, eztabaida egoki baterako ohiturak hartzekoa, eta bakoitzak bere irizpidea izaten eta, aldi berean, besteen ikuspegia ulertzen ere uzten duen gaitasuna.

6. Jarrera aktiboak izatea egoera fisiko orokorra hobetzeko, ekintzak bakoitzak gorputzaren eta mugimenduaren aldetik dituen ahalbide eta mugen arabera egokituz.

Ikasleek beren egoera fisikoa hobetzeko lagungarri izanen diren jokabide aktiboak izateko interesik baduten begiratuko da. Aldi berean, unean uneko mugimendu garapenaren araberako gaitasun fisikoak garatu dituzten ere begiratuko da. Horretarako beharrezkoa izanen da ondoz ondoko behaketak egitea, emaitzak konparatuz eta aurrerapenak nolakoak izan diren ikusiz. Halaber, ahalegina neurtzeko eta ariketa norberaren ahalbide eta mugetara egokitzeko gaitasuna hartuko da kontuan.

7. Taldeko konposizioak prestatzea kideekin batera arituz; horretarako, gorputzak adierazpenerako dituen baliabideak erabiliko dira, eta estimulu musikal, plastiko edo hitzezkoetatik abiatuko da, ideia eta sentimenduak komunikatu eta irudikatzeko.

Irizpide honekin baloratu nahi da taldean lan egiteko duten gaitasuna, helburuak partekatuz, ikuskizun txiki bat prestatu ahal izateko. Bestalde, sentsazioak, mezuak, etab. keinuaren eta mugimenduaren bidez modu ulergarrian komunikatzeko duten gaitasuna, banakakoa eta taldekoa, behatuko da, eta, horri lotuta, adierazpeneko elementuak behar besteko lasaitasunez, herabetasunik gabe, sormenez eta estilo propioa azalduz helarazteko gai diren ere behatuko da.

8. Ariketa fisikoa zuzen eta ohikotasunez egitearen eta norberaren eta taldearen osasuna hobetzearen arteko lotura batzuk identifikatu eta horiei jarraikiz jokatzea.

Egiaztatu behar da ikasleek lotura koherenterik ezartzen ote duten alderdi kontzeptualen eta ohitura osasungarriak hartzearen inguruko jarreren artean. Ondokoetarako joerarik baden ikusiko da: ariketa fisikoa egitea, sendetarismoa alde batera utziz, gorputz jarrera zuzenak izatea, modu orekatuan elikatzea, behar bezala hidratatzea, jarduera fisikoak egiten direnean beharrezko ardura eta arretaz jokatzea, arriskuak saihestuz...

9. Beren esperientziak ahoz eta idatziz azaltzea eta beren pentsamenduak arloko berariazko hitzak erabiliz adieraztea.

Irizpide honen bidez ebaluatu nahi da arloko testuen inguruko mintzamenari eta idazmenari dagokionez lortu den hizkuntza gaitasuna, eta ikasi den berariazko hiztegiaren erabilera nolakoa den.